En lo que afecta a las designaciones de Pleno Muncipal, la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales, con los votos favorables de los señores y señoras Albistegui, Escribano y Telleria, y las abstenciones del resto de los y las asistentes, propone al Pleno Municipal acuerde:

<u>En la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio:</u>

- DESIGNAR vocal titular a Dña. Ana Telleria Echeverria, en lugar de D. Jon Iraola Iriondo, y como suplente de la misma a D. Jon Iraola Iriondo.

- Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna izendatzea Alberto Albistegui Zamacola jaunaren ordezko.

- DESIGNAR a D. Francisco Javier Lejardi Galarraga vocal suplente de D. Alberto Albistegui Zamacola.

Kiroletako Udal Patronatuaren Zuzendaritza Kontseilua.

- Jon Iraola Iriondo jauna izendatzea Alberto Albistegui Zamacola jaunaren ordez."

Consejo Rector del Patronato Municipal de Deportes.

- DESIGNAR vocal a D. Jon Iraola Iriondo en lugar de D. Alberto Albistegui Zamacola."

Aurreko diktamena botaziora eraman eta onartu egin da honako emaitza honekin:

Sometido a votación el precedente dictamen, es aprobado con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos afirmativos: Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ez dago ezezko botorik.

Votos negativos: ninguno.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordea

Comision de Trabajo de Cuentas, Hacienda Y Patrimonio.

1.- 2017ko Udal Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien laugarren espedientea

Irizpen hau irakurri da:

"2017. jardunaldiko Udal Aurrekontuari dagozkion partidetan izendatutako kredituak urriak izatera, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak urgantziazkotzat eta premiazkotzat hartu dira.

Udal Aurrekontuaren kreditu gehigarrien laugarren espedientearen inguruan alkateak egin duen proposamena eta, espediente horren inguruan, kontu-hartzaileak egindako txostena ikusita,

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan batzordeak proposamena bozkatu zuen. Hona hemen bozketaren emaitza: aldeko botoak, 4 (Miguel de los Toyos, Alberto Albistegui, Patricia Arrizabalaga eta Jon Iraola); abstentzioak, 5 (Gorka Errasti, Ana Francisca Astigarraga, Elena Ibañez, Eva Juez eta, Mª Jesus Aguirre). Horren ondorioz, Udal Aurrekontuko Kreditu Gehigarrien laugarren espedientea onartzea eskatu dio Osoko bilkurari, honako zenbateko hauek dituena:

1.- Cuarto expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal 2017.

Se da lectura al siguiente dictamen:

"Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal del Ejercicio 2017; se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Vistos, la propuesta de alcaldía sobre el cuarto expediente de créditos adicionales del Presupuesto Municipal y el informe del interventor sobre el expediente,

A continuación la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con los siguientes resultados: 4 votos a favor (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, y Jon Iraola); y 5 abstenciones, (Gorka Errasti, Ana Francisca Astigarraga, Elena Ibañez, Eva Juez y, Mª Jesús Aguirre), en consecuencia propone al Pleno Municipal la aprobación del cuarto expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto Municipal cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

I. FUNTSEN JATORRIA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 441.705,00 |
| Guztira gehikuntzen adina | | 441.705,00 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2 | Gastuak ondas.arrunt /zerb. | 28,.705,00 |
| 5 | Kreditu globala eta best.ust. | 300.000,00 |
| 6 | Inbertsio errealak | 113.000,00 |
| Kredituen Gehikuntza guztira | | 441.705,00 |

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 8 | Activos financieros | 441.705,00 |
| TOTAL igual a los aumentos | | 441.705,00 |

II. CREDITOS EN AUMENTO

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2 | Gtos. en b. corr. y serv. | 28.705,00 |
| 5 | Crédito global y otr. Impr. | 300.000,00 |
| 6 | Inversiones reales | 113.000,00 |
| TOTAL Créditos en aumento | | 441.705,00 |

Kreditu gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendea jakinaren gainean gera dadin.”

Asimismo el presente expediente de créditos adicionales, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública.”

Lehenik, Errasti jaunak hartu du hitza; adierazi du espediente honekin lau partida handitzen direla, 18.000 euroan areagotzen dela arrisku-egoeran dauden adingabeen familietan esku-hartzeko, eta bere Taldearentzat hori larria dela, zeren gero eta familia gehiago baitaude laguntza profesionala behar dutenak, eta gero eta zailtasun gehiago dituzte.

Interviene en primer lugar el señor Errasti quien afirma que con este expediente se incrementan cuatro partidas, que se amplía en 18.000 euros para intervención familiar de menores en situación de riesgo, y que para su Grupo esto es grave, pues cada vez hay más familias que precisan de un aporte profesional, y aumentan cada vez más las dificultades que tienen.

Gaineratu du orain Enplegu Zerbitzuak bi urterako diru-laguntza bat aterako duela familietan esku-hartzeko eta kale-hezitzaileendako, 361.000 eurokoa, baina berriz ere azpikontratazioekin dabiltzala,

Añade que ahora saldrá por el Servicio de Empleo una subvención para dos años, para intervención familiar y educadores de calles por importe de 361.000 euros, pero que de nuevo se está con las

eta badakitela zer muga datozen Madriletik, batez ere pertsonal propioa kontratatzeko, eta familia horien egoera ez dela koiunturazkoa; eta gero eta behar handiagoa dutela herritarrek familiako esku-hartze zerbitzuarena, beraz, eurek proposatzen dute Udalak lan egin dezala plantilla propioa izateko Madrileko zama arintzen denean; izan ere, egiturazko zerbitzuak gero eta gehiagotan azpikontratatzen dira.

subcontrataciones, pues ya se saben las limitaciones que vienen desde Madrid, sobre todo para la contratación de personal propio, y que la situación de estas familias no es algo coyuntural; precisando los ciudadanos cada vez más este servicio de intervención familiar, proponiendo por tanto que el Ayuntamiento trabaje para crear una plantilla propia cuando se aligere la carga de Madrid, pues los servicios estructurales cada vez se subcontratan más.

Jarraitu du esanez 10.000 euro bideratzen direla “Eibar Ekinean” programarako, eta bere Taldearentzat interesgarria eta beharrezkoa dela eta bere Taldek ere ekarpenak egin dizkiola.
Horren haritik —jarraitu du—, bi datu: Eibarko langabetuen % 26 etorkinak dira; langabetuen % 74 ia kualifikaziorik gabeak dira eta, beraz, halako proiektuak behar dira, baina ez garapen ekonomikorako zinegotziak aurrera eraman ditzan, baizik eta berehala kontratatu behar diren teknikariek egin ditzaten.

Prosigue su intervención diciendo que se destinan también 10.000 euros para el programa “Eibar Ekinean”, que para su Grupo es interesante y necesario y al que también su Grupo ha hecho aportaciones.
Al efecto, prosigue, dos datos: el 26% de los parados de Eibar son inmigrantes, el casi el 74% de los parados lo son sin cualificación, por lo que son necesarios más proyectos como éste, pero no para que los lleve adelante el concejal de desarrollo económico; sino los técnicos que ya hay que contratar para que lleven adelante los proyectos.

Jarraitu du esaten pozten direla Iparragirre eta Saratsuegiren irisgarritasunaren hobekuntzarako Bilduk eta EAJ-PNVk batera egindako eskaerak ondorioak eduki izanarekin, inguru horretako auzotarren aspaldiko eskaera delako eta ziur haiek ere pozten direla

Continúa diciendo que se alegran de que haya surtido efecto la solicitud conjunta de Bildu y EAJ-PNV para llevar adelante la mejora de accesibilidad de Iparragirre y Sautxi, porque es una vieja demanda de los vecinos de la zona y que seguro que ellos también se alegran de que se

gaia konpondu izanaz.

Baina duda egiten dute Bilduk eta EAJ-PNVk ez balute proiektua berehala gauzatzeko eskatu, ez ote zen izango beste proiektu bat gehiago tiraderan gordea, ez baitu ulertzen zein den Talde Sozialistaren irizpidea proiektuak martxan jartzeko.

Ondoren, Ibañez andreak hartu du hitza eta esan du kreditu gehigarri hori ia milioi erdi eurokoa dela.

Gaineratu du 18.000 euro jasotzen direla arrisku-egoeran dauden familietan esku-hartzeko programarako, aipatu den legez, gehiago baitira artatutako familiak, eta horrek arrazoiren bat izan behar duela.

Lehengo batean arlo horretan lan egiten duen psikologoari galdetu zion ea zergatik gehitu diren artatutako familiak, eta honek esan zion krisi ekonomiko eta sozialeko garaietan adiago egon behar dela kolektibo ahulenekiko, nola diren adingabeena, edo gizartean baztertuta egoteko arriskuan dauden familiena.

Jarraitu du esaten ez dela itsutu behar hormaren puntu batean, baizik eta horma osoari begiratu behar zaiola, eta begi bistan dagoela Eibar egoera zailean dagoela, mendekotasun maila gero eta altuagoak dituela, enplegua suntsitzen ari dela, eta era guztietako behar sozialak areagotzen ari direla; eta, hortaz, mesede

solucione el tema.

Pero les queda la duda, concluye, de si Bildu y EAJ-PNV no hubieran solicitado su ejecución inmediata, si sería otro proyecto más guardado en el cajón, ya que no entiende el criterio del Grupo Socialista para poner en marcha los proyectos.

Interviene a continuación la señora Ibañez quien afirma que este crédito adicional supone casi medio millón de euros.

Añade que se recogen 18.000 euros para el programa de intervención familiar en situación de riesgo, que tal como se ha dicho, son cada vez más las familias atendidas, y esto tiene que ser por alguna razón.

El otro día preguntaba a la sicóloga que trabaja en este campo, prosigue, el porqué del aumento de las familias asistidas, y le decía que en época de crisis económica y social hay que estar más atentos a los colectivos más sensibles, como los menores, o las familias con riesgo de exclusión social.

Sigue diciendo que no hay que centrarse en un punto de la pared, sino ver la pared entera, y que es evidente que Eibar está en una situación delicada, que tiene niveles crecientes de dependencia, destrucción de empleo, aumento de necesidades sociales de todo tipo; y que por tanto flaco favor se hace al municipio

eskasa egiten zaiola herriari ez bazaie arazo horiei guztiei sustraietatik heltzen, diru-laguntzak banatzera mugatu beharrean; hortaz, laguntzen jarraitzeaz gain, epe luzerako apustuak egiteko obligazioa dago parke edo jaiez haratago, eta inbertitu aberastasuna sortzen duen ekosistema batean, hori baita Udalak egin dezakeen gizarte-politikarik onena.

Aurrerago dio espero duela Gobernu Taldeak daukan krisia gainditzea eta Plan Estrategikoa erreferentziatzat hartzea, ilusioa eragingo duten hiri-proiektuak abian jartzeko.

Saltoki txikien hobekuntzarako diagnostikorako 10.000 euroei dagokienez, adierazi du planteamendu hori sortu zela partidu Sozialistaren, Irabaziren eta partidu Nazionalistaren artean adostu zen enplegu-plan baten baitan, 300.000 euroko diru-partida batekin; eta haren kargura hainbat proiektu egin direla, baina ez dakitela nola funtzionatu duten haietako hainbatek.

Proiektu horietako bat zen —jarraitu du— talde Sozialistak bere Taldeari eta Irabaziri egin ziena, eta ordurako Bildu gurdi-barruan zihoala, baina bere Taldeak ez zuela argi, uste baitzuen Udalak egindako Immigrazio Planak jasotzen zuela Debegesak egin zezakeela hemen planteatzen ari dena, ahaztu gabe lehengo batean Ogasun Batzordetik heldu zen uztaileko irizpenean hitz egiten zela

si no se trata de atajar todos esto de raíz, sin que se pueda limitar a dar ayudas; sino que es obligación, aparte de seguir ayudando, hacer apuestas a largo plazo, más allá de los parques, festejos, e invertir en un ecosistema que genere riqueza, siendo ésta la mejor política social que puede hacer el Ayuntamiento.

Dice más adelante que espera que el Equipo de Gobierno supere la crisis que tiene y que tome como referencia el Palan Estratégico para poner en marcha proyectos ilusionantes de ciudad.

En relación a los 10.000 euros para diagnóstico de mejora del pequeño comercio, continúa, indica que este planteamiento surgió dentro de un plan de empleo que se pactó entre el partido Socialista, Irabazi y el partido Nacionalista con una partida de 300.000 euros, y con cargo al mismo se han hecho varios proyectos, pero se desconoce cómo han funcionado muchos de ellos.

Uno de estos proyectos, prosigue, es el que el grupo Socialista planteó a su Grupo y a Irabazi, y que para entonces Bildu ya se había subido al carro, pero que su Grupo no lo veía porque entendía que el Plan de Inmigración elaborado por el Ayuntamiento ya contemplaba que Debegesa pudiera realizar lo que aquí se está planteando, sin olvidar que el dictamen que llegó el otro día a la

talde Sozialistaren eta Bilduko taldearen arteko zuzenketa baten emaitzaz; baina esan zen bezala, halako zuzenketarik ez zegoen, eta gainera Batzordean ez zela batere dokumentaziorik aurkeztu, eta Bilduko ordezkaria izan zen dokumentazioa eman ziona, berak orri bat baino ez zuen-eta.

Comisión de Hacienda era un dictamen fechado en julio, en el que se hablaba del resultado de una enmienda entre el grupo Socialista y Bildu, pero que tal como se concretó, esta enmienda no existía como como tal, y que además en la Comisión no se aportó ningún tipo de documentación, siendo que fue el propio representante de Bildu el que le dio la documentación, pues ella sólo disponía de una hoja.

Jarraitu du esanez Immigrazio Planak jasotzen duela “beren enpresa edo negozioa martxan jartzea aurreikusten duten ekintzaileei banaka laguntzeko neurriak bermatzea", eta arduradun gisa Ekonomia eta Enplegu Saila, Armeria Eskola, IMH, Debegesa, Lanbide eta Immigrazio Saila ageri direla; eta Planak berak galdetzen duela ea beharrezkoa den aurrekontua eta erantzuten duela baietz, baina, dioenez, aurrekontu hori existitzen dela Debegesari esleitutako baliabideetan; horregatik guztiagatik, berak ez du ulertzean zergatik jasan behar dituen Udalak hama mila euro.

Sigue en su intervención diciendo que el Plan de Inmigración recoge “garantizar medidas de acompañamiento individualizado a personas emprendedoras que prevean poner en marcha su empresa o negocio”, recogiendo como responsables al Área de Economía y Empleo, Armería Eskola, IMH, Debegesa, Lanbide y Área de Inmigración, haciéndose la pregunta el propio Plan de si es necesario un presupuesto, y respondiendo afirmativamente, pero diciendo que ese presupuesto ya existe dentro de los recursos asignados a Debegesa; por todo lo cual, no entiende que el Ayuntamiento tenga que soportar diez mil euros.

Beste egitasmo batzuk ere jasotzen dira, hala nola Iparragirre-Saratsuegikoa, baina hain da larria Gobernu Taldearen krisia ezen gainontzekoek hartu behar izan baitute beren gain proiektu batzuen lidergoa, esaterako oraintxe aipatu duguna, 2016an bideratuta egonik,

También se recogen otros proyectos, prosigue, como es el proyecto de Iparragirre-Sautxi, pero que es tal la crisis del Equipo de Gobierno que los demás han tenido que asumir el liderazgo de algunos proyectos como ha sido éste que se habilitó en el 2016, pero por el que

Gobernu Taldeak ez duelako inolako interesik izan gauzatzeko; baina, hala ere, bere Taldea pozik dagoela espaloi berriak egin behar direlako auzotarrak oinez ibiltzeko, zeren eta orain arte errepidetik ibili beharra baitzeukaten espaloien estutasuna eta oztopo arkitektonikoak zirela-eta.

Jarraitu du esaten urriaren 18ko justifikazio-txostenean esaten dela proiektu batzuen idazketa kontratatu beharra atzeman dela, aurrekontuan jasota ez zeudenak, eta bere Taldeak ez dio beharrezkoak ez direnik, baina ez dagoela ados moduekin; izan ere, Batzordean inork ez zekien nondik atereak ziren.

Beste egitasmo bat, dio, Aldatze-Itzioko urbanizazioa da, eta horri dagokionez, Batzordean galdetu zen ea zer eragin izan zezakeen Jardiñetako igogailuaren eraikuntzan, ea dena batera egiteko asmoa zegoen; erantzuna izan zen igogailuaren proiektua ez zela atzeratuko eta espero zutela aste horretan bertan prest egongo zela lizitazio-espedientea, baina gaur arte ez dela ezer egin.

Jarraitu du esaten uste duela Jardiñetako auzotarrei adarra jotzen ari zaiela, ez dela konfiantza sortzen ari herritarren artean eta sinesgarritasun-krisi bat dagolea.

Equipo de Gobierno no ha tenido ningún interés en ejecutarlo; pero que de todas formas, su Grupo está contento porque se van a hacer aceras nuevas por las que los vecinos podrán transitar, pues hasta ahora tenían que andar por la carretera por la estrechez de las aceras y las barreras arquitectónicas.

Sigue afirmando que en el informe justificativo de 18 de octubre se dice que se ha visto la necesidad de contratar la redacción de una serie de proyectos, no contemplados en el presupuesto, y que su Grupo no dice que no sean necesarios, pero que en lo que no está de acuerdo son en las formas, pues en la Comisión nadie sabía de dónde habían salido.

Otro de los proyectos que aparece, continúa, es la urbanización de Aldatze-Itzio, y al respecto se preguntó en la Comisión sobre la afección que pudiera tener en la construcción del ascensor de Jardiñeta, si se pretendía hacer todo a la vez; a lo cual se respondió que el proyecto del ascensor no se demoraría y que se esperaba que para esa misma semana estuviese el expediente de licitación, pero que a día de hoy no se ha hecho nada.

Prosigue diciendo que cree que a los vecinos de Jardiñeta se les está tomando el pelo, que no se está generando ninguna confianza en la ciudadanía y hay una crisis de credibilidad.

Aurrerago dio beste proiektuetako bat dela Pagaegi eta Jardiñeta kaleen arteko irisgarritasuna hobetzea; 2016ko abenduan eta Partidu Sozialistarekin adostutako zuzenketa baten ondorioz, Pagaegiren eta Jardiñetaren arteko irisgarritasunari buruzko aurretiazko azterketa bat entregatu zela sei aukera jasotzen zituena, hainbat zenbatekorekin, eta berak galdetu zuenean Ogasun Batzordean ea zer aukeratan oinarritzen zen, inork ez zuela erantzuten jakin; hortaz, espero duela bihar argituko dela gaia Obren Batzordean.
Amaitu du esanez bere Taldea abstenitu egingo dela.

Dice más adelante que otro de los proyectos es la mejora de la accesibilidad entre la calles Pagaegi y Jardiñeta, que ya en diciembre de 2016 y fruto de una enmienda pactada con el Partido Socialista, se entregó un estudio previo de accesibilidad entre las calles Pagaegi y Jardiñeta que contemplaba seis alternativas, con diferentes importes, y que cuando ella preguntó en la Comisión de Hacienda en qué alternativa se basaba, nadie le supo contestar, por lo que espera que mañana se aclare el tema en la Comisión de Obras.
Finaliza diciendo que el voto de su Grupo será la abstención.

Agirre andreak adierazi du ez duela zer esanik, ez duelako gaia hasieratik ezagutu, eta horregatik nahiago duela abstenitu.

Indica la señora Aguirre que no tiene nada que decir, pues no ha conocido el tema desde su origen, por lo que prefiere abstenerse.

Errasti jaunak hartu du hitza eta esan du bere Taldea ez dela inoren gurdi barruan sartzen, eta ez zaiola esamoldea gustatu.

Interviene el señor Errasti para decir que su Grupo no se sube a ningún carro por lo que no le ha gustado la expresión.

Zuzenketak —jarraitu du— ez dira inorenak; Talde Sozialistak Enplegu Plana aurkeztu zien eta bere Taldeak ekarpen batzuk egin zituen, EAJ-PNV Taldeak zein Irabazik baztertu egin zituztenak; baina EAJ-PNV Taldeak ere egiten dizkio ekarpenak bere Taldeari, eta denak

Las enmiendas, prosigue, no son exclusivas, el Grupo Socialista les contrastó el Plan de Empleo y su Grupo hizo una serie de aportaciones que tanto el Grupo EAJ-PNV como Irabazi rechazaron, pero también Grupo EAJ-PNV hace aportaciones a las enmiendas

daudela aberasteko eta ideiak emateko.

de su Grupo, estando todos para enriquecer y aportar.

Ibañez andreak dio ez dakiela esamoldea ote den gurdira igo edo koiunturaz baliatu, eta berarentzat gehiago dela egoeraz baliatu, eta akordioa adostu zuten hiru taldeetatik, biri ez zitzaiela gustatu egitasmoa eta, gauza bitxia, gustatu ez zitzaionetako batek eman diola babesa.

La señora Ibañez dice que no sabe si la expresión es subirse al carro, o aprovechar la coyuntura, y que para ella es aprovechar la situación, y que de los tres grupos que pactaron, a dos no les gustó el proyecto y que es curiosamente el que lo ha apoyado.

Albistegui jaunak esaten du Alkate jauna hemen balego, erantzun egingo liekela planteatutako galdera eta zalantzei, hura delako lehen eskuko informazioa duena; horregatik, bere taldekideren batek bere esparruko konturen bati buruz zerbait esan nahi badu, esan dezala.

El señor Albistegui afirma que si estuviese el señor Alcalde respondería a las preguntas y dudas planteadas porque es el que tiene información de primera mano, por lo que prefiere que si alguno de sus compañeros quiere intervenir en la materia que les ocupa, que lo haga.

Sarasqueta andreak hartu du hitza eta esan du Gizarte Zerbitzuen Batzordean azaldu zela benetan igoera bat gertatu dela familia eta adingabeen esku-hartze kasuetan, eta kontu horrek kezkatu egiten dituela, baina egiten ari direla zenbait gauza dagoeneko, eta pertsona bat kontratatu behar dela, haurtzaroko teknikariari laguntzeko eta kasu gehiagotara heltzeko.

Gaineratu du berak ez duela psikologoekin kontsultatzen, uste duelako medikuntzaz eta psikologiaz badakiela zerbait.

Interviene la señora Sarasqueta para decir que ya se explicó en la Comisión de Servicios Sociales que realmente hay un aumento de casos en intervención familiar y menores, cuestión que les preocupa, pero que sí se están haciendo cosas al respecto, y que se va a contratar a una persona más para ayudar a la técnica de la infancia e intentar llegar a más casos.

Añade que ella no consulta con sicólogos porque cree que de medicina y sicología, sabe algo.

Benitez jaunak hartu du hitza eta esan du Udal honek beti egin duena izan dela herritarren beharrak betetzen saiatzea, eta, batez, ere, ahulenen beharrak, eta, beraz, 18.000 euro behar badituzte jarri egin beharko direla.

Interviene el señor Benítez quien afirma que lo que siempre ha hecho este Ayuntamiento en estos temas es cubrir las necesidades de los ciudadanos y sobre todo, de los más desfavorecidos y por tanto que si se precisan 18.000 euros, habrá que ponerlos.

Gaineratu du Udala ez dagozkion jarduketak ordezten eta betetzen ari dela, esaterako, langabeziaren arazoa konpontzea edo langabeen % 74k formaziorik ez izatea, zeren eta Eusko Jaurlaritzak ditu datu hori hobetzeko mekanismoak formazioa emanez; eta formazioa hori Udalak ere ematen du.

Añade que el Ayuntamiento está supliendo y cumpliendo actuaciones que no le corresponden, como puede ser arreglar el problema del paro o que el 74% de los desempleados no tengan formación, pues le Gobierno Vasco tiene mecanismos para mejorar ese dato con formación, formación que también la hace el Ayuntamiento.

Obretako proiektuen kasuan, jarraitu du, egia da egin zitekeela Obren Batzorde bat joan zen astean, baina aurrekontu bat egiten denean zerrenda bat dagoela seguru egingo diren jarduketekin eta aurrekontu horrek adostutako gaiak zituen baina ez zeuden aurrekontuan bertan, nahiz eta gauzatzeko diru-kopurua izan.

En caso de los proyectos de obras, continúa, es verdad que se podría haber hecho una Comisión de Obras la semana pasada, pero cuando se hace un presupuesto hay un listado de actuaciones que seguro que se van a hacer y este presupuesto tenía asuntos pactados pero que no estaban en el propio presupuesto, aun cuando dispusiesen de dotación para hacerlas.

Urtearen akabera arte, badakite zer jarduketa gehitu dakizkiokeen urte hasieran aurreikusitakoei eta egin dena izan da horiek sartzea.

Para lo que queda de año, prosigue, saben qué actuaciones se pueden ampliar a las ya previstas a primeros de año y lo que se ha hecho es introducirlas.

Jarraitu du esanez egia dela Aldatze-Itzioko urbanizazioa igogailuarekin lotuta dagoela, baina espaloia zabaltzeak

Continúa diciendo que la urbanización de Aldatze-Itzio es verdad que está ligada al ascensor, pero que ampliar la acera

partzela pribatu batetik pasatzen den linea elektrikoa desbideratzea dakarrela, zeinaren titularrak erabilera laga behar duen; eta horretan daudela, partzelaren titularra den ikastetxeak konpromisoa hartu duela aste honetan lagapena ekartzeko, eta gai hori konpondu bezain laster igorriko dela espedientea kontratazziora.

supone que hay que desviar la línea eléctrica que pasa por una parcela particular cuyo titular tiene que ceder el uso, y que se está en ello, habiéndose comprometido el colegio titular de la parcela a traer la cesión esta semana, y que en cuanto esté resuelto este tema se remitirá el expediente a contratación.

Amaitu du esaten beste proiektu batzuk ere sartu direla, eta bihar emango dela horien berri Obretako Batzordean.

Finaliza afirmando que se han introducido también otros proyectos de los que se dará cuenta mañana en la comisión de Obras.

Ibazñez andreak galdetu du ea noiz igorriko den igogailuaren kontratazioa Kontratazziora, esan zelako ez zela itxarongo Itzioko urbanizazioaren lizitaziora arte.

La señora Ibañez pregunta cuándo se va a remitir la contratación del ascensor a Contratación, ya que se dijo que no se esperaría a la licitación de la urbanización de Itzio.

Benitez jaunak dio bi egitasmo direla, bata ikastetxeari dagokiona, eta bestea Udalari berari; baina kontratazio bakar bat izan behar dutela eta hirugarrenaren lagapena dutenean hasiko dela lizitazioa.

Afirma el señor Benítez que son dos proyectos, uno que corresponde al colegio, y otro al propio Ayuntamiento; pero que tienen que tener una única contratación y que cuando se tenga la cesión del tercero, se iniciará la licitación.

Ibañez andreak galdetu du ea zer epe aurreikusten diren eta ea urte amaierarako izango den.

La señora Ibañez pregunta qué plazos se barajan y si será para finales de año.

Benitez jaunak dio kontratazio-espedienteak behar duen denbora.

Dice el señor Benítez que el tiempo que conlleve el expediente de contratación.

Albistegui jaunak hartu du hitza eta esan du iaz Irabazi, Bildu eta EAJ-PNVk zuzenketa bat aurkeztu zutela 300.000 eurokoa, eta hartatik hainbat programa irten zirela, eta gehitzeko, berak Irabaziri eta EAJ-PNVri proposatu ziela eskaera batzuei erantzutea; eta Bilduk proposamen bat aurkeztu zuela euren taldearekin nahiko bateratsu zetorrena, baina proposamenak Enplegu Planarean sartzeko EAJ-PNVren eta Irabaziren ezezkoen aurrean, Bilduri igorri ziola ezezko hori, eta hor geratu zela gaia.
Gaineratu du urte honetarako formazio-programa batzuk planteatu direla, eta Bildu ados dagoela horiek aurrera eramatearekin, baina egia dela ez dituela Batzordean planteatu iazkoen antzekoak direlako, zeinek gainerako taldeen ezezkoa jaso zuten.

Interviene el señor Albistegui quien afirma que el año pasado Irabazi, Bildu y EAJ-PNV presentaron una enmienda por 300.000 euros de la cual salieron una serie de programas, y que para sumar, él propuso a Irabazi y a EAJ-PNV atender una serie de peticiones, presentando Bildu una propuesta que coincidía bastante con el enfoque de su Grupo, pero que ante la negativa de EAJ-PNV e Irabazi de incluir las propuestas en el Plan de Empleo, trasladó a Bildu esta negativa quedando ahí el tema.
Añade que para este año, se han planteado unos programas formativos con los que Bildu está de acuerdo en llevarlos adelante, pero que es verdad que no los ha planteado en la Comisión porque son similares a los del año pasado; que contaron con la negativa del resto de grupos.

Irizpena bozketara eraman da honako emaitza honekin:

Sometido a votación el dictamen, se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos afirmativos: Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo (PSE-EE).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

2.- San Andres Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren Aurrekontuaren Kreditu Gehigarrien Aurreneko espedientea

Irizpen hau irakurri da:

“2017. jardunaldiko San Andres Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren Aurrekontuari dagozkion partidetan izendatutako kredituak urriak izatera, ondoren zehazten diren kontzeptuengatik egin behar diren gastuak presakotzat eta premiazkotzat hartu dira.

San Andres Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren kreditu gehigarrien aurreneko espedientearen inguruan Alkatetzak egin duen proposamena eta espediente horren inguruan Kontu-hartzaile jaunak egindako txostena ikusita,

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

2.- Primer expediente de Créditos Adicionales del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés

Se da lectura al siguiente dictamen:

“Al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés para el Ejercicio 2017; se considera la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que se detallan.

Vistos, la propuesta de Alcaldía sobre el primer expediente de créditos adicionales del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés, y el informe del Interventor sobre el expediente,

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak proposamena bozkatu zuen. Hona hemen bozketaren emaitza: aldeko botoak, 6 (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga eta Jon Iraola, Gorka Errasti eta Ana Francisca Astigarraga,) abstentzioak, 3 (Elena Ibáñez, Eva Juez eta Mª Jesús Aguirre). Horren ondorioz, San Andres Nagusien Egoitza Fundazioa Publikoaren Aurrekontuko kreditu gehigarrien aurreneko espedientea onartzea eskatu dio Osoko bilkurari honako zenbateko hauek dituena:

A continuación la comisión de trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con los siguientes resultados: 6 votos a favor (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, Jon Iraola, Gorka Errasti y Ana Francisca Astigarraga), y 3 abstenciones (Elena Ibáñez, Eva Juez y Mª Jesús Aguirre), en consecuencia propone al Pleno Municipal la aprobación del Primer expediente de créditos adicionales del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de Ancianos San Andrés cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

I. FUNTSEN JATORRIA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 82.885,93 |
| **Guztira gehikuntzen adina** | | **82.885,93** |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonalaren Gastuak | 82.885,93 |
| Kredituen Gehikuntza guztira | | 82.885,93 |

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 8 | Activos financieros | 82.885,93 |
| **TOTAL igual a los aumentos** | | **82.885,93** |

II. CREDITOS EN AUMENTO

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de personal | 82.885,93 |
| TOTAL Créditos en aumento | | 82.885,93 |

Kreditu gehigarrien espediente hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eman behar da argitara jendea jakinaren gainean gera dadin.”

Asimismo el presente expediente de créditos adicionales, deberá publicarse en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para su información pública.”

Abanzabalegui andreak hartu du hitza. Esaten du onartzen diren azken aldaketak izatea espero duela, pertsona nagusien egoitzak Aldundiaren eskumenekoak direlako eta, hain zuzen ere, Aldundiak aspalditik eduki behar zukeelako San Andres egoitza bereganatuta.

Interviene la señora Abanzabalegui quien afirma que esperan que ésta sea la última modificación, pues las residencias de ancianos y en concreto, la Residencia San Andrés, hace tiempo que tendría que estar asumida por la Diputación, pues es su competencia.

Aurreko agintaldian, gaineratzen du, Kabia erakundeak aurreikusi zuen 2017rako beregana zezakeela, baina egutegi berria egin zen eta egutegi horren arabera 2019an bereganatu beharko luke, baina aurten hartu beharko zituen egoitzekin ere atzeratuta dabilenez, inork ez daki zer gertatuko den 2019an.

En la anterior legislatura, añade, el organismo Kabia vio que aproximadamente para el 2017 la podría asumir, pero se planteó un nuevo calendario según el cual lo asumiría en el 2019, pero las asunciones programadas para el 2017 están retrasadas; por lo que no se sabe qué pasará en el 2019.

Amaitzeko, esan du aurreko agintaldiko egutegia bete izan balitz Eibarko Udalak ez lukeela inongo gasturik izango bere gain, egoitza Aldundiarena izango litzatekeelako.

Finaliza diciendo que si se hubiera cumplido el calendario, no tendría que suponer ningún gasto para el Ayuntamiento.

Aguirre andreak dio ados dagoela gaiarekin, beti pentsatu izan duelako pertsonal sanitario honek laguntza behar duela egiten duen lana benetan handia delako.

La señora Aguirre afirma que está de acuerdo con el tema porque siempre ha pensado que este personal sanitario tiene que tener apoyo por la gran labor que realiza.

Irizpena bozkatu eta aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen, se aprueba por unanimidad.

3.- Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak

3.- Propuesta de la Asociación

egindako proposamena 2018ko tarifak onartzeko.

Guipuzcoana del Taxi de aprobación de tarifas auto-taxi, para el año 2018.

Irizpen hau irakurri da:

Se da lectura al siguiente dictamen:

"Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak egin duen idatzian azaltzen du, egindako azterketa ekonomikoaren arabera eta jarduera horretan aritzeak dakarkien kostuaren gehiegizko igoera ere kontuan hartuta, datorren urterako —2018— tarifak berrikusteko proposamena egin duela tarifok Deba Beheko eskualdearen esparru osoan aplikatzeko.

"La Asociación Gipuzkoana del Taxi expone en su escrito que según el estudio económico realizado y teniendo en cuenta también el desmesurado incremento del coste de desempeño de la actividad, ha realizado una propuesta de revisión de tarifas para el próximo año 2018 para aplicarla al ámbito de la comarca del Bajo Deba.

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan batzordeak proposamena bozkatu du. Hona hemen bozketaren emaitza: aldeko botoak, 4 (Miguel de los Toyos, Alberto Albistegui, Patricia Arrizabalaga eta Jon Iraola); abstentzioak, 5 (Gorka Errasti, Ana Francisca Astigarraga, Elena Ibañez, Eva Juez eta, Mª Jesus Aguirre). Udal Osoko bilkurari erabaki hauek hartzeko proposamena egin dio:

La Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta, con 4 votos a favor (Miguel de los Toyos, Alberto Albístegui, Patricia Arrizabalaga, y Jon Iraola); y 5 abstenciones, (Gorka Errasti, Ana Francisca Astigarraga, Elena Ibañez, Eva Juez y, Mª Jesús Aguirre), y propone al Pleno de la Corporación la adopción de los siguientes acuerdos.

AURRENA: 2018rako aurkeztutako proposamena ONARTZEA, beraz, Eibarko Udalak onetsi zituen azken taxi-tarifak % 1,6 igotzea.

PRIMERO: APROBAR para el año 2018 la propuesta presentada lo que supone 1,6 % de la última tarifa de taxi aprobada por el Ayuntamiento de Eibar

| 2018rako TARIFA PROPOSAMENA / PROPUESTA TARIFA URBANA 2018 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| TARIFA 1*/ 1. TARIFA | | | 2. TARIFA / TARIFA 2** | | |
| GUTXIENEKO TARIFA / Tarifa Mínima | EGINDAKO KILOMETRO BAKOITZEKO / | ITXARON-ORDUA /Hora de | GUTXIENEKO TARIFA / Tarifa Mínima | EGINDAKO KILOMETRO BAKOITZA / | ITXARON-ORDUA / Hora de espera |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | Kilómetro recorrido | espera | | Kilómetro recorrido | |
| 5,0955 | 1,2760 | 17,0547 | 5,5484 | 1,4122 | 17,9333 |

Gutxieneko tarifak 1,5 kilometroko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia hartzen du.

La tarifa mínima incluye 1,5 Km. De recorrido o cinco minutos de espera.

(*) Tarifa hori lanegun edo astegunetan aplikatuko da 07:00etatik 22:00etara.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 22:00 horas.

(**) Tarifa hori egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Bestalde, II. Tarifa hori, domeketan goizeko 7etatik gaueko 10etara (07:00-22:00), eta autonomia eta tokiko arautegian finkatutako jai egunetan aplikatuko da, baita, zapatuetan, abenduaren 24an eta 31n, ekainaren 24an —San Juan—, irailaren 8an —Arrate eguna— eta San Andres egunean, azaroaren 30ean, ere.

(**) Esta tarifa será aplicable todos los días desde las 22:00 horas a las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados, los días 24 de diciembre y 31 de diciembre, y los días 24 de junio, San Juan, 8 de septiembre, Ntra. Sra de Arrate, y .30 de noviembre, San Andrés.

BIGARRENA: espedientea Debegesara bidaltzea."

SEGUNDO: Remitir el expediente a Debegesa."

Aurreko diktamena botaziora eraman eta onartu egin da honako emaitza honekin:

Sometido a votación el precedente dictamen, es aprobado con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo

Votos afirmativos: Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga e Iraola Iriondo

(PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

4.- Antonio Campos Mingorance jaunak DINERCAR ATRES SL enpresaren administratzaile den aldetik egindako eskaera, Txaltxazelaiko parkinaren emakidaren inguruko hipoteka emateko baimena aldatzeko.

"Irizpen hau irakurri da:

"AURREKARIAK

1.- 2016ko uztailaren 26an, Udal Osoko bilkurak baimena eman zuen Txaltxazelaiko parkinaren zerbitzu publikoaren kudeaketa-kontratua, administrazio-emakida bidez, DINERCAR ATRES SL sozietatearen eskuetan lagatzeko. Ordura arteko titularra GESPARK INVERSIONES 2008 SL zen, likidazioan zegoena.

(PSE-EE), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

4.- Solicitud presentada por D. Antonio Campos Mingorance, en su condición de administrador de la empresa DINERCAR ATRES, S.L., de modificación de la autorización de concesión de hipoteca sobre la concesión del Parking de Txaltxa Zelai.

"Se da lectura al siguiente dictamen:

"ANTECEDENTES

1.- Con fecha 26 de julio de 2016, el Pleno Municipal acordó autorizar la cesión del contrato de gestión, mediante concesión administrativa, del servicio público de Parking de Txaltxa Zelai, de la que era titular GESPARK INVERSIONES 2008, SL. EN LIQUIDACIÓN, a favor de DINERCAR ATRES, SL.

2.- Lagapen hori eskritura publikoan jaso zen, 2016ko irailaren 28an, Vitoria-Gasteiz-eko Luis Perez de Lázarraga Villanueva notario jaunaren aurrean, haren protokoloaren mila eta berrogeita hemeretzi zenbakiarekin.

2.- La cesión fue formalizada en escritua pública otorgada el 28 de septiembre de 2016, ante el notario de Vitoria-Gasteiz, Don Luis Pérez Lazárraga Villanueva, con el número mil cincuenta y nueve de su protocolo.

3.- 2016ko azaroaren 2an, Udal Osoko bilkurak, DINERCAR ATRES SLren eskaera bati erantzunez, aparkaleku-ustiapenaren emakidaren gainean hipoteka bat egiteko baimena eman zuen, CAIXABANK SAk emandako mailegu baten berme gisa.

3.- Que con fecha 2 de noviembre de 2016 el Pleno Municipal, atendiendo una petición de DINERCAR ATRES, SL, acordó autorizar la constitución de una hipoteca sobre la concesión de explotación del aparcamiento en garantía de un préstamo concedido por CAIXABANK, SA.

4.- 2017ko irailaren 14an Udal honetan DINERCAR ATRES SLren idazki bat sartu zen baimenaren aldaketa egiteko eskaera eginez. Hain zuzen ere, hau dioen lekuan:

“Baimena ematea Txaltxazelaiko aparkalekuaren ustiatze-emakidaren gaineko hipoteka eratzeko, DINERCAR ATRES SLk CAIXABANK SAri eskatu eta horrek emandako maileguaren berme gisa."

Hauxe:

“Baimena ematea Txaltxazelaiko aparkalekuaren ustiatze-emakidaren gaineko hipoteka ELKARGI SGR elkarrekiko bermearen sozietatearen alde eratzeko, DINERCAR ATRES SLk CAIXABANK SAri eskatu eta horrek

4.- Que con fecha 14 de septiembre de 2017, ha tenido entrada en el Ayuntamiento un escrito de DINERCAR ATRES S.L., solicitando la modificación de la autorización sustituyendo

